

Ikaslearen izena: Belate Amondarain


4. PRAKTIKA. Gaur egungo munduaren geodemografia: ugalkortasuna, populazioaren joera, zahartze prozesua, menpekotasun tasa, trantsizio demografikoa eta populazio piramideak

1. Populazioaren dinamika naturala

Nola neurtzen da lurralde baten populazio baten hazkunde naturala denbora tarte batean?

Jaiotze -tasa eta ugalkortasun-tasa kontuan hartuta, lurralde baten bizi-itxaropena kalkulatzeko eta heriotza-tasa begiratuta, lurralde baten populazio baten hazkunde naturala kalkulatzen da.

Hurrengo (eta [link](#) honetan 1541-2019 tartera) mapan munduko herrialdeetako ugalkortasuna erakusten da.



1. Mapa. 2005 eta 2010 bitartean, ugalkortasun osoa munduko herrialdeetan. Iturria: Nazio Batuak

Zer neurtzen du ugalkortasunak?

Gizarte edo populazio batean ematen diren jaiotza kopurua ugaltze adinean, 15 urtetik 49urtera, dagoen emakumeak kontuan hartuta.

Zer da ordezkatzeko-maila?

Bilakaera naturala (hazkunde naturala) emateko behar den ugaltze-tasa da. Ordezkatzeko-maila 2,1 zifran dago; badaude herriak, zeinak 2,1 baino ugaltze tasa handiagoa duten herrialdeetan bilakaera naturala POSITIBOA da eta 2,1 baino gutxiagoko ordezkapen-maila izatean hazkunde-natural NEGATIBOA dute. Esan beharra dago, ordezkatzeko-maila ez dela herrialde guztietan berdin aplikatuko, 2,1 zifra orientatiboa da lurralde garatuetzat, Europaren kasu. Aldiz, herrialde ez-garatuak 2,3-2,5 unitateen artean kalkulatzen da ordezkatzeko-tasa.

Kontinente guztietan (Afrika, Asia, Ipar Amerika, Latinoamerika eta Karibe, Europa, Ozeania), zeinek dute ordezkatzetasa baino ugalkortasun handiagoa, hurbilagoa edo txikiagoa?


Afrika erdialdea, Asiako herrialde batzuetan eta Zentroamerikako (Guatemala) ugalkortasun-tasa ordezkatzetasa baino handiagoa da, hau da, hazkunde natural positiboa dute. Zentro Amerikan, Hego Amerikan, Afrikako iparraldea eta hegoaldean, Islandian eta Asiako herrialde batzuetan (India, Txina, Pakistan ...) ordezkatzetasa hurbiltzen da, Europako lurralde batzuen (Frantzia, Finlandia, Noruega...), Ipar Amerika, Ozeania, Hego Amerikako ekialdeko lurraldeen eta Asiako lurraldeen kasuen bezala eta hazkunde-natural negatiboa duten lurraldeak, Europako gehiengoa eta Asiako Errusia eta Tailandia dira, 2,1 unitatea baino txikiagoko ordezkatzetasa dute.

Nola eragiten dio ugalkortasunak kontinenteetako populazioaren egungo hazkunde-mailari?

Amerikan era positibo batean, bai hegoaldeko zein iparraldeko herrialdeetan 2,1 ordezkatzetasa-maila unitateari hurbiltzen baitira. Afrika orokorrean beste unitate batzuetan neurtu behar da, 2,3-2,5 unitateen artean eta horren arabera hazkunde-natural handia du. Ozeania hazkunde-natural positiboa, Asian populazioaren gehiengoa dago kontzentratuta eta oso heterogeneoa da, iparraldeko lurraldea den Errusiak hazkunde-natural negatiboa du, 2,1 unitate baino txikiagoko ordezkatzetasa dauka eta Asiako hegoaldea hazkunde-natural positiboari eusten dio. Europaren kasua, orokorrean hazkunde-natural negatiboa dauka.

2. Biztanleriaren zahartzea

Hurrengo irudian erakusten da nola aldatu den biztanleriaren zahartze-prozesua azken hamarkadetan kontinenteka.



1. Irudia. 60 urte edo gehiagoko biztanleen ehunekoa (%), kontinenteka, 1950 eta 2012 bitartean, eta 2015erako proiektzioa. Iturria: Nazio Batuak

Nola neurtzen da biztanleriaren zahartzea?


Bizi-itxaropenaren tasa igotzen denean eta jaiotza-tasa jeistean, adineko pertsonen populazio totalaren proportzio bat adierazten dutela erakusten duen prozesua kalkula dezakegu.

Nola eragiten du ugalkortasunak eta hilkortasunak/bizi-itxaropenak zahartze-prozesu horretan?


Aurreko galderan aipatu legez, ugaltze-tasa txikia bada (umeak jaiotzen ez badira) eta bizi-itxaropena igotzen bada (zaharren heriotza-tasa jeistean) zahartze prozesua ematen dela deritzogu.

Ondoko irudietan, biztanleen mendekotasun tasa ageri da:

- 1960, 1980 eta 2009an garatutako herrialde batzuetan.
- Kontinenteka, 2010ean (eta 2050 eta 2010erako proiektzioa).



2. irudia. Menpekotasun tasa (16 eta 64 urte bitarteko 100 pertsonako 65 urte edo gehiagoko pertsonen kopuru gisa adierazia) 1960an, 1980an eta 2009an, herrialde garatu batzuetan. Iturria: Nazio Batuak



3. Irudia. Menpekotasun tasa (65 urte edo gehiagoko pertsonen kopuruan adierazia, 20 eta 64 urte bitarteko 100 pertsonako) 2010ean, kontinenteka, eta 2050 eta 2100erako proiektzioa. Iturria: Nazio Batuak

Zergatik da garrantzitsua menpekotasun-tasa maila sozioekonomikoan?

Jubilatuena eta lan egiten duten pertsonen arteko alde (100 pertsonako unitatearekin) neurtzen duen tasa da. Herrialde garatueta tasa igo da eta haziko dela aurreikusten da, horrek pentsio-sistemaren indartzea dakar, bestela jubilatu askok pobrezia bizi dezakete. Dependentsia tasak arlo askotan eragiten duenez, sozioekonomikoki ondorioak ekar ditzake, besteak beste, osasun zerbitzuetan, gizarte zerbitzuetan, zaintza-lanetan eta pentsio sisteman.

Tasa horren bilakaera (bereziki Europan eta Japonian), nazioarteko migrazioak ekar ditzake? Zein helbururekin?



Herrialde ez garatuetan pentsio-sistema ahulak izatekotan, migrazioak ekar ditzake. Europa eta Japonian zahartze prozesua igotzean, zenbait herrialdeetan zerbitzuak kalitatezkoak izanen dira eta herrialde garatuetan hori da gertatzen dena. Hortaz, migrazioen helburua, pentsio-sistema eta orokorrean, sozioekonomikoki hobekuntzak aurkitzea izan daiteke.

Populazioaren egitura sexuaren eta adinaren arabera: biztanleriaren piramideak

Klasean ikusi dugunez, irudi horrek oso modu eskematikoan erakusten du nola isladatzen den biztanleria-piramideen forman trantsizio demografikoaren prozesua.

Population Structures & the DTM

The population structures change as countries develop and progress through the demographic transition model. The typical stages of the pyramids are show below...



Lotura honetan eskuragarri dauden 2019. urteko biztanleria-piramideak aztertuta:

<https://www.populationpyramid.net/>

► Trantsizio demografikoaren ereduaren zein fasetan daude gaur egun munduko eskualde handi hauek? (Kontuan izan Asiako azken jaiotza-kontrolak. Hausnartu zergatik hazi den Estatu Batuak, ordezkatzeko indizea 2.1 baino txikiagoa izan arren...)

- África: 1.fasean, hau da, jaiotze eta heriotza tasak igo dira eta arrazoi horregatik ez da hazkunde naturalik.

-Sub-Saharan Africa: 1.fasean daude ere.

-Asia: 3.fasea, jaiotze-tasa jeitsi (antisorgailuen hedapenagatik, emakumearen sarrera lan eta hezkuntza munduragatik). Populazioaren hazkunde mantsoagoa da.

-Southern Asia: 2.fasea, heriotza-tasak jeitsi emandako garapenagatik eta jaiotze-tasak igotzen dira. Populazioaren hazkunde naturala.

-Europe: 5.fasea, herrialde garatuentzat zuzendutak, jaiotze-tasa baxuak dira eta zahartze prozesuarengatik populazioaren bilakaera negatiboa izan daiteke.

-Southern Europe: 5.fasea

-Western Europe: 3.fasea

-Eastern Europe: 5.fasea

-Northern Europe: 5.fasea

-Latin America and the Caribbean: 1.fasea


-North America: 2.fasea. Ipar Amerikan hobekuntza eta garapenak eman dira; hortaz bizi-itxaropena igotzen da eta zahartze-prozesua gertatzen da. Zahartze prozesuak ez du kentzen jaiotza-tasaren igoera nabaria dela

-Oceania: 2.fasea

World population by region projected to 2100, 1950 to 2100

Projected population to 2100 is based on the UN's medium population scenario.

Our World
in Data




Source: HYDE (2016) & UN, WPP (2019)

OurWorldInData.org/world-population-growth • CC BY

3. Irdia. Biztanleria osoa (milaka milioitan) kontinenteka 1950 eta 2020 bitartean, eta 2050 eta 2100 arteko proiektzioa. Iturria: Nazio Batuak (2020)


Hurrengo bi irudiak kontuan hartuta, azaltzen du trantsizio demografikoaren zein fasetan, edo zein faseren artean dagoen mundua bere osotasunean.

Figure 2. Population of the world: estimates, 1950-2015, medium-variant projection and 80 and 95 per cent confidence intervals, 2015-2100



Source: United Nations, Department of Economic and Social Affairs, Population Division (2015). *World Population Prospects: The 2015 Revision*. New York: United Nations.

Figure 1. Distribution of the world's population by age and sex, 2015



Source: United Nations, Department of Economic and Social Affairs, Population Division (2015). *World Population Prospects: The 2015 Revision*. New York: United Nations.

Migrazioak

Hurrengo bideoa ikusi (<https://canal.uned.es/video/5a6f5748b1111f5c628b47ff>) eta erantzun galdera hauei (klaseko apunteak ere baliagarriak izan daitezke):

- Zergatik migrazioak izan dira historikoki garrantzitsuak gaur egungo mundua azaltzeko?

Migrazioak, populazioaren mugimendu espaziala da, denbora tarte luze batean populazio horren bizitokia aldatzen da eta migrazioaren fenomeno gertatzen da. Migrazioen emateak, hainbat faktore ditu, besteak beste, sozioekonomikoak, politikoak, ingurumen arazoak, gerrak... Migrazioek ondorioak dakarte, batetik, emigranteen jatorrizko lurraldean, populazioaren zahartzea gertatzen da (gazteak emigratu baitute), jaiotze-tasa jeisten da, giza kapitala galtzen da ekoizpen gaitasuna ahulagoa delako... aldiz, emigranteen harrerako lurraldean, populazioa gaztetzen da, jaiotze-tasa handitzen da eta heriotza-tasa jeisten da (populazioaren hazkunde naturala eta erreala eman), ekoizpen gaitasuna igo egiten da, kultur aniztasuna gauzatzen da... Askok dira hortaz, lurraldeetan historikoki gertatu direnak migrazioengatik.

- Zein da globalizazioaren garia duen berezitasuna pertsonen mugimenduari dagokionez?

Globalizazioa zentzu orokor batean ulertzen den arren, pertsonak ezin dute leku batetik bestera migratu historian zehar bezala, hau da, merkantzia bezala. Merkantziak komertzializatu ahal dira mundu osoan, merkatu askearen teoriaren arabera komertzializatu daitezke, aldiz, pertsonen mugikortasuna materiala baino askoz mugatuta agertzen da gaur egun. Pertsonen mugikortasuna legeen menpe gelditzen da; erakunde internazionalak edo jatorrizko estatuak jarritako legeengatik. Horien arabera, mugikortasuna eta desplazamenduak egitea erraztu ahal dira edo guztiz kontrakoa; zailtasun gehiago jarri ahal dituzte hauek gauzatzeko.

- Zergatik migratzen du jendeak kolonia ohietatik hasieran kolonizatzailea izan zen herrialdera (adibidez Argeliatik Frantziara).

Herrialde kolonizatzaileak beste lurraldeetara hedatu ziren haien boterea areagotzeko, errekurtsu berriak lortzeko, lurraldeak berenganatzeko, botere-politika sustatzeko eta baliabideak ustiatzeko. Herrialde kolonizatzaileak historiaren gertaeren bidez, garatu izan dira. Hau eman eta gero, kolonizatzaileak kolonietara migratu ziren eta bueltan, denbora pasatzean, herrialde menperatutako jendeak herrialde menperatzaileetara migratu ziren bizi-kalitatea hobetearren. Haien bizi-kalitatea hobetuko zela garatutako herrialdeetan ikusten baitzuten; hauek eskaintzen zituzten zerbitzu eta aukerengatik.

- Nola azaltzen da 2011an hainbeste Espainiako gazte Latinoamerikako herrialdeetara emigratzea?

2008ko krisia ondoren, Espainiako gazteak emigratzera behartuak ikusi ziren lana bila. Espainiako gazteen populazioa, emigratzera behartuak ikusi zirenak, gehienak oso formatuak zeuden. Horregatik atera ziren bai Europara bai Hego Amerikara lan bila, ikasketak bukatzerakoan zeukaten prestaketari esker, errazago zeukaten lanpostu bat eskuratzeko Espainiatik kanpo Espainian baino. Krisia zela eta, Espainian lan postuak mugatu ziren eta askok Hego Amerikara emigratu behar izan zuten.

- Hurrengo terminoak definitu: Migrazio internazionalak (edo kanpo migrazioak), barne migrazioak, errefuxiatuak eta barne desplazatuak.

Migrazio internazionalak: Unitate administratibo batetik bestera emandako migrazio mugimenduak deritzo. Populazioaren mugimendu espazial honek denbora tarte luze batean bizitokiaren aldaketa suposatzen duena, jendeak haien jatorrizko herrialdeetatik kanpora mugitu behar izaten dira. Herrialde batetik bestera ematen den mugimendua izanda.

Barne desplazatuak: Herrialde beraren baitan egiten diren desplazamenduak dira, jendeak haien bizilekuetatik mugitzen dira beste lurralde batera haien jatorrizko lurraldeak atzean utziz. Hau ematen da mota askotariko jazarpenengatik edota lurraldean bertan ematen diren gatazkengatik. Migrazio hauek herrialde berdinarekin baitan ematen dira.

Errefuxiatuak: Hainbat faktoreengatik haien bizitokia eta jatorrizko herrialdea utzi izan behar duten pertsona edo pertsona taldea da, beste herrialde batera mugitu izan direnak. Hortaz, errefuxiatuek emigratzen duten pertsona taldea dira. Emigratzera eramaten diren faktoreak, besteak beste, gatazka armatuak dira (guduak), giza eskubideen urraketak, jazarpen poliziala zein politikoa, etnikoa,... jasaten dutenean, etab.

Barne migrazioak: Muga administratiboa kontuan hartuz, muga administratiboaren barnean ematen diren migrazio mugimenduak deritza, non populazioaren mugimendu espaziala ematen den. Barne migrazioak gauzatzeko, zenbait faktore eman behar dira pertsonak haien bizilekua uzteko beste lurralde batera aldatzeko. Eta arrazoi hauek faktore ekonomikoak, inguruko arazoak, gatazka politikoak,... barnebiltzen dituzte. Esan beharra dago, barne migrazioetan ematen den populazio mugimendua, kanpo migrazioak baino hirukoitza izaten dela.